

Martxoan erositako hamar Simply dendetako bat da**EROSKI-K SUPERMERKATU PROPIO BAT IREKI DU BILBON, HENAO KALEAN**

- **Saltoki berrituak elikagai freskoetan espezialista den gama bat eskaintzen du; tokiko produktuen alde egiten du; dirua aurrezten laguntzen du eguneroko erosketan EROSKI Cluben bitartez; arreta pertsonala ematen du; eta bere gama zabalean ekoizleen markak eta marka propioa konbinatzen ditu**
- **EROSKI 8 milioi euro inbertitu ditu Simplyri martxoan erositako hamar dendak berritzeko eta eraldatzeko**
- **Hil honetan eta 2021eko lehen hiruhilekoan inauguratuko dituzte Bizkaian erositako gainerako bederatzi dendak**

Bilbo, 2020ko irailaren 25a.- [EROSKI](#) supermerkatu bat ireki du, Henao kaleko 29.ean (Bilbon). Martxoan Simplyri erositako hamar dendetatik irekitzen duen lehena da. Beste zazpi supermerkatu aurten irekiko dira, eta gainerako biak 2021eko lehen hiruhilekoan.

EROSKI bere presentzia zabaldu du Bilboko auzo guztietan, eta eskaintza osatu du dendak ipinita Getxon, Astrabuduan, Santurtzin, Basaurin eta Galdakaon; hala, 90 supermerkatu ditu jada Bilbo Handian.

Denda berriak EROSKI/City izena edukiko du, eta ia 500 metroko salmenta aretoa. Bertan ariko diren 21 langileek prestakuntza jaso dute, freskoen atalean espezializatzeko eta bezeroei arretarik eta irtenbiderik onena eskaintzeko.

Supermerkatu berriaren ezaugarrien artean, nabarmentzekoa da bezeroaren arreta pertsonalaren alde egindako apustua, okindegia, harategia, urdaitegia eta arrandegia jarri baititu. Hilero-hilero eskaintzak eta sustapen kanpainak izango dira, kontsumitzaileei aurrezten laguntzeko. Aurrezpen horretan, EROSKI Cluba da erakusgarri behinena. Bezero-bazkideak markarekin fidelizatzeko programa da, eta oso sustapen erakargarriak ditu, baita Travel Club txartelak lehendik zituen abantaila guztiak ere, zeinak Nafarroan 209.000 bazkide baino gehiago baititu.

Tokian tokiko produktuen garrantzi handia

"EROSKIren supermerkatu honen nortasun ikurretako bat tokiko elikagaien sorta zabala da, zeinetan sasoiari sasoi freskoek garrantzi handia hartzen baitute", esan du EROSKI iparraldean dituen supermerkatuen zuzendariak, Ismene Fulgenciok. Lehen seihilekoan %14,5 igo da EROSKI Euskal Autonomia Erkidegoan saltzen dituen tokiko produktuen kopurua. Eskualdeko 10.000 produktu inguru merkaturatzen ditu, eta horiek erosteko 650 milioi eurotik gora erabiltzen ditu urtero.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Produktu dietetikoek eta biologikoek ere beren tokia dute supermerkatu berrian, elikagai joera berri guztiak biltzen dituzten guneeekin. Gainera, atal horretan, produktu espezifiko sorta zabal bat dago, elikagai intolerantziak dituztenentzat (glutena, laktosa...) eta gantz, azukre eta gatz gutxi jan behar dutenentzat. Horretaz gainera, lurrindegri-parafarmaziaren atal zabal bat du, eta prestakuntza berezia duen langilea edukiko du bezeroari zainketa pertsonalerako arreta osoa eskaintzeko.

Era berean, saltokia jasangarriagoa da ingurumen aldetik; izan ere, kontsumitzen duen energia %60 gutxitzen du supermerkatu konbentzional baten aldean, eta eraginkortasun eta ingurumen jasangarritasun baldintza zorrotzak betetzen ditu; horrek indartu egiten du EROSKI taldeak ingurumenarekin eta gizarte ongizatearekin duen konpromisoa. Hotz industrialean aplikatzen duen berrikuntza teknologikoari esker, eraikinak gutxiago kontsumitzen du. Gainera, argiterian LED teknologia darabil; horri esker, argiztapena homogenea da eta ikusmenarentzat oso eroso, eta ingurumen arriskua eta kontsumoa gutxitzen ditu. Hala berean, zentroak baditu bestelako elementu lagungarriak ere, gehien kontsumitzen diren produktuak kontrolatu, kudeatu eta monitorizatzeko, eta, horrela, zentroaren kudeaketa eraginkor bat egiten da energia aldetik.

Janari banatzaileetan lehen Euskal Autonomia Erkidegoan

Kooperatiba izaera duen lehen banatzailea da EROSKI, eta liderra Euskal Autonomia Erkidegoko elikagaien banaketan. 411 saltoki ditu guztira autonomia erkidegoan, hala nola supermerkatuak, hipermerkatua, cash & carryak, gasolindegia, optikak, bidaiak bulegoak eta kirol ekipamendurako dendak, eta *on line* supermerkatua, zeina bakarra baita erosketak EAE osoko edozein etxetara eramaten dituen.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)